

BERRIGARA

100. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, martxoak 18

ETXANIZ
ETA
ZEZEAGAK
FINALA
JOKATUKO
DUTE
LARUNBATEAN
BERGARAN

AMODIOZKO
GUTUNEN
I. BERRIGARA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEAK
BADITUGU

KIROLAK

LOKATZA
ZIKLISMO
ESKOLAK
AURTENGO
TALDEA
AURKEZTU
DU

Calendar grid for March 1993, featuring the text "astero-astiro... OTIK 100era" overlaid.

MAIATZA

A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

IRAILA

A	A	A	O	O	L
1	2	3	4	5	
7	8	9	10	11	12
14	15	16	17	18	19
21	22	23	24	25	26
28	29	30	31		

OTIK 100era



OPEL ASTRA BERRIA

POTENTZIA
ADIMENTSUA



OPEL

TALLERES
OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEN:
Loramendi, 2. Tfnok: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK. HOBEAK ESPERIENTZIAZ.

EHUNDAKA FAMILIA EUSKALDUNEK HARTZEN DITU UDAN EUSKARA-IKASLEAK ETXEAN

HARTUIZUE ZUENEAN ERE:

- Hilabetez, uztail, abuztu zein irailean.
- Etxeko lanetan lagunduko dizue.
- Neska zein mutila, zuen aukeran.
- 60.000 pzta.ko ordainsaria.

EUSKARAK IRABAZIKO DU ETA ZUEK ERE BAI

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA, MARTXOAK 31

**ARGIBIDE GEHIAGOTARAKO, JO BERGARAKO UDALEKO EUSKARA
ZERBITZURA**

BERGARAKO UDALA



EUSKARA ZERBITZUA

GINEKOLOGI KONTTSULTATEGIA

**CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak**

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurnaldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!**



**Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18**

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeleak: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereziar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpideizak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta
Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereziar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifru.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK

ETXANIZ-ZEZEAGA

Exaniz eta Zezeagak enpresa tradizionalen binakako pelota txapelketaren finala jokatuko dute larunbatean Bergarako pelotalekuan Urionaguena eta Galarza III.aren aurka.

Ligillako onenak izan ditugu bergararrak, jokatu dituzten 6 partiduetatik bakar bat galdu bait dute (Retegi eta Tolosaren aurkako bigarrena). Momentuz ez dute partidurik galdu larunbatean beren etsaiak izango direnen kontra eta 6 partidu hauetan 128 tantu egin dituzte eta, aldiz, 101 tantu egin dizkiete.

Bi bikoteek asteaz-



kenean egin zuten material aukeraketa eta bergararrek pelota pitsuagoak aukeratu zituzten, lau pelotariak gustora geratuz..

Finala arratsaldeko 4 t'erdietan hasiko da eta ETBko lehen kateak zuzenean eskeiniko du partidua.

Binakako txapelketaren finala jokatuko dute larunbatean

ITURRI ONETIK

385 lagun bi lanposturako

Udalak lehiaketa publikora atera dituen bi administari laguntzaile lanpostutarako 385 lagun inguruk eman dute izena. Kulturako administari laguntzaile posturako 170 eskabide izan dira eta Ongizate Zerbitzuko beste lanposturako, berriz, 215. Sarrera probak martxoaren 29 eta 30ean egingo dira eta gogoratu behar da aurreko deialdian mekanografia probara iritsi ziren denak suspenditu zutelako geratu zirela bi plazak hutsik.

ESAN DUTE

" 13 urtetan preso pila batekin izan ditut hartu-emanak. Egunero, batazbeste, 6 bat karta idazten dizkirate eta gaueko 11 t'erdietatik aurrera erantzuten aritzen naiz".

PILI KORTAZAR
UNEDeko idazkaria
SENIDEON AHOTSA

"El Estado de las Autonomias izeneko debatea Estatu espainola osatzen duten erregio eta nazioen egoera sozial eta politikoari buruzko eztabaida faltsua da".


JOSE LUIS ELKORO
HBko senatorea
EGIN

"Euskal antzerkigintzaren maila baxua da. Krisi egoera honetan inork ez daki bere etorkizuna zein den".

MIREN URKIJO
Antzertiko kidea
ARIZ-ONDO



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motoren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**BELLE EPOQUE**

Larunbata: 17.00, 19.30 eta
22.30.

Igandea: 17.00, 19.30. eta
22.15.

Astelehena: 19.30.

**EL OJO PUBLICO**

Ostirala: 17.00, 19.30 eta
22.30.



EUROPA EUROPA
Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Fernando Truebaren** filma Berlingo Zine Jaialdian saritua izan ez arren, 9 *Goya* lortu berri ditu, filma onenarena tartean. Aktore/aktorea ezagunenekin eta errepublika garaiko Portugalen girotuta, komedia eta drama tartekatzen ditu.

▼▼ **Joe Pesci** (*Uno de los nuestros*) aktore ezagunak 50. hamarkadako argazkilari profesional baten papera lantzen du. Bere lanak buruhauste bat baino gehiago ekarriko dio.

▼▼ Benetazko istorio batetan, oinarririk, **Agnieszka Hollanden** filme honek hainbat sari lortu ditu zine jaialdi ezberdinetan (Urrezko Globo tartean). **Sally Pererek II.** Gerrate Mundialean bizi izan zuena kontaktzen zaigu.

Erakusketak

▼ **Beira lanketa** ikastaroan parte hartu zuten ikasleen erakusketak egongo da ikusgai Kultur Etxean igandera arte, hilak 21, ohizko ordutegiarekin.

▼ **Pol Pol Argazki Taldeak** talde modura antolatzen duen lehen argazki erakusketa ikusgai izango da martxoaren 24tik apirilaren 4ra bitartean.

Farmaziak▼ **Ostirala 19:**

Guallar/Morales (Arrasaten gaeuz)

▼ **Larunbata 20:**

Estella/Azkoaga.

▼ **Igandea 21:**

Estella/Español.

▼ **Astelehena 22:**

Mozos/Corcuera.

▼ **Asteartea 23:**

Camacho/Irizar.

▼ **Asteazkena 24:**

Puy/Amezua.

▼ **Osteguna 25:**

Guallar/Ruiz.

▼ **Ostirala 26:**

Estella/Azkoaga.

Ogia

▼ **Ostirala 19:** Bolintxo.

▼ **Igandea 20:** Mizpildi.

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

MINER Ardo onak,
ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

Ikuskizunak

▼ **Hitzaldia.** Rosa Azkue sendagileak *"Hipertension arterial"* izenburuko hitzaldia emango du Jubilatuetan asteazkenean, hilak 24, arratsaldeko 5etan.

▼ **El cabo del miedo** filmea ostegunean, hilak 18. gaueko 10etan Antzuolako zine-aretoan.

▼ **Primitivos** taldea ostiral gauean Bergarako Gaztetxean.

Aukeran

▼▼ **Udal Musika Bandak** kontzertua eskeiniko du ostiralean, San Jose egunean, eguerdiko 12 terdietan Novedades aretoan ondoko egitarauarekin: *La millor terra del mon* (E. Rosillo), *I vespri siciliani* (G. Verdi), *The wide land with the little church* (M. Van Delft), *Katuska* (P. Sorozabal) eta *Montescos y capuletos* (S. Prokofieff).



Kirolak

▼ Eskubaloia:

• *Bergara-Usurbil* (Jubenil neskak). **Larunbatean** 16.30etan.

▼ Futbola:

• *Bergara-Arrasate* (lehen mailako infantila). **Ostiralean** 10etan Ipintzan.

• *Bergara-Txartel* (2. errejionala). **Ostiralean** 11.30etan Agorrosinen.

• *Bergara-Aldapetarrak* (lehen mailako jubenila). **Ostiralean** 11.30etan Ipintzan.

• *Bergara-Kostkas* (2. mailako kadetea). **Igandean** 11.30etan.

• *Bergara-Anaitasuna* (preferente maila). **Igandean** 16.45etan Agorrosinen.

• Kirol Eskolako Futbol-7 txapelketa larunbat goizean Ipintzan.

▼ Saskibaloia:

• *Ibili Bergara-Irun* (senior gizonak). **Ostiralean** 11.30etan.

▼ Futbitoa:

• **Astebukaeran** Labegaraietako Kiroldegian.

5

PROFESIONALAK

• Etxaniz - Zezeaga / Urionaguena - Galarza (ETBk zuzenean).

• Ladutxe - Armendariz / Goñi - Tolosa.

• Gabilondo - Galardi / Telletxea - Alberdi.

Udal Pelotalekuan larunbatean arratsaldeko 4.30etatik aurrea.

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

MUGICA

Goxotegia



Artekale, 3
☎ 76 10 34

pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...

Kakazaharrari bueltaka

Azken bolada honetan, futbito txapelketan izan diren gertaera batzuk harritu naute. Beste eskutiak batzuetan esan zen moduan, futbito kantxan biolentzia esistitzen da. Baina ez da harritzeko modukoa ere, esaten dizutenean ostikada batez istripu bat gertatu dela.

Honako hauetxek dira onenatariko lagun batek kontatu zizkidanak.

Orain dela gutxi, bi tipo amorrubizian zeudela, elkar jipoitzen hasi ziren. Azkenean, ostikada batez sudurra apurtu zion batek besteari eta sudurra apurtu zioten tipoak ospitaletik irtetzean zera zioen: "harrapatzen badut jo eta akabatu egingo dut!". Benetan beldurra ematen du ezta? Bada, hor ez da kontua bukatzen.

Zoritxarrez, beste tipo bat sarrera txar bategatik Arrasateko ospitalera eramane behar izan zuten. Tipo hau itxoiten zegoen bitartean medikuen artean zera zioten: "Aizue!, Bergarako futbito txapelketatik datorkigu beste tipo bat belaua txikituta duela".

Gertatutakoa ez da batere atsegina izan. Nahiz eta beti honelako gauzak ez gertatu, oraindik basatiak badaude.

Jolasa arriskutsua bihurtu baino lehen bi gauza esatea besterik ez litzaidake gstatutuko. Biolentzia arbitroiek kontrolatuta ez badago, antzerako ekintzak sariago ikusiko ditugu. Horrexegatik, epaileak -profesional bat

izan ez arren- egoera latz hauek gainditu behar ditu.

Eta azkenen, futbitoan jolastera eta ondo portatzera joaten garenok, geure taldeetan ez dugu inolako bortxakeriarik onartzerik.

Martin de Pedro Laskurain

Lotsagarria!!

18 urteko futbolzale batzuk gara. Azken aldian preferente mailako Bergararen futbol partiduak ikustera joan garen guztietan, sarreran oztopo batekin aurkitu gara. Sarrerako betaurrekodun gizontxoak, barrura sartzeko 500 pzt. eskatu dizkigu eta guk dugun asteko pagaren gehiengoa dela ikusirik atzera egin beharrean ikusi gara. Eta berriz, gizontxo honek ezagutzen dituen gazte gehienei ordaindu gabe pasatzen uzten die. Baina hori ez da txarrena, bigarren zatirako iristen bazara, urdaiazpikoaren zozketarako boleto bat erosi behar diozu barrura sartu ahal izateko.

Ikusirik lehen mailako futbol partiduetan sarrera merkeena 800 pezetatakoa dela, eta Bergara preferentean dagoela jakinik, Bergara Kirol Elkarteari 200 pezetako sarrera jartzea eskatu beharrean ikusten gara.

Gazte talde bat NAN: 15. 392. 610

Korrika

Martxoaren 26a eta apirilaren 4a bitartean, herriz-herriz Euskal Herri guztitik pasako da KORRIKA ren 8. edizioa, Iruñean hasi eta Bilbon bukatuko delarik. Lemak hauek dira: "denok maite dugu gure herria", "denok maite dugu gure herria EUSKARAZ" eta azkenik "DENOK EUSKARAZ".

Oraingo honetan ere, euskararen alde ixilean eta apalki egindako lanagatik beste pertsonaia bat omendu nahi luke KORRIKAK aurten Martin Ugalde idazle eta euskalzale famatua izango delarik. Bergaratik, martxoaren 31n arratsaldeko 3.40 inguruan pasako da KORRIKA, Antzuolatik etorriko da eta gure herrian sartu ondoren Elgetaruntz joango da. BERGARAKO KORRIKAK KORRIKAN parte hartzea animatzen zaituzte, KORRIKA egunean antxitxika eginez, aurrez egingo diren ekintzetan parte hartuz, materialea erosiz (kamisetak, sudaderak, motxilak, e.a....) eta nola ez kirol talde, kultur elkarte, enpresa, udala, kuadrila, ikastetxe, alderdi politiko, e.a. animatuz kilometroak erostera (25.000 pzt. bakoitza), eta hau larregi bada, lasai! edozein laguntza ongiatorria izango da.

KORRIKA batzordea asteazkenero Kultur Etxean elkartzeko da arratsaldeko 7etan. Nahi baduzu, zatoz zu ere.

Begarako Korrika Batzordea

Tiira ba!


GAUR, 100. ALEA OSPATZEKO ELKARRIKETATUKO DUGU BERRIGARAKO TXORRADA GILE OFIZIALA



TIRA BA, NOLABAIT OSPATZEKO ASHORIK BA AL DUZU 100. TXORRADA?



BENO, GAUZA EZPEZIALIK EZ. HAN DANASEI AFARITXON BAT KENDUKO DOTSETELAKOTAN NAJAK BADA ZELEBRAZIO GOGORREUAK 1000 ALERAKO LAGATZEU JITUAT.



Ikastaroak langabetuentzat

Bergarako Udalak beira lanketa eta igeltseritzari buruzko ikastaroak antolatu ditu 18 urtetik gorako langabetuentzat apiriletik azarora bitartean (abuztua ezik). Ikastaroak San Juan industri pabilioi batetan burutuko dira eta izena emateko epea martxoaren 22tik 30era bitartean egongo da zabalik Irizar Jauregian.

EAJren batzarra

EAJk dei egiten die bere alderdikideei datorren ostegunean, hilak 25, arratsaldeko 8etan egingo den Ezohizko Batzarrean parte hartzera.

Igandean 87-88 urteko bergararrak omenduko dituzte Jubilatuetan

Igandean, hilak 21, 87-88 urte dituzten bergararrei omenaldia egingo zaie Jubilatuetan; 12etan Santa Marinaran meza izango da eta ordu batetan Egoitzako abesbatzaren emanaldia, omendutakoiei oparien banaketa, guztientzako txistorra eta trikitilariak iragarri dira.

Jubilatuen irteerak

Begarako Jubilatuen Egoitzak ere 65 urtetik gorakoei zuzendutako Xacobeo-93 bidaiak antolatu ditu apiriletik urrira bitartean. Galiziarako bidaiak hauek, autobusez, 5 egunekoak izango dira eta bi alditako txanden artean aukeratu ahal izango da; apirilaren 26tik ekainaren 26ra lehena eta irailaren 6tik urriaren 8ra bigarrena. Argibide gehiago nahi izanez gero, inte-



Jubilatuek ekitaldi ugari iragarri dituzte datozen egunetarako.

resatuek 434343 dohane-ko telefonora deitu dezakete.

Era berean, apirilaren 1ean Calahorrara joateko irteera antolatu da. Irteera goizeko 7.45etan izango da, 13.30etan hango jubilatuen egoitzan bazkalduko da eta 19.30etan buelta. Irteerak 2.150 pta. balio du eta izena emateko azken eguna mar-

txoaren 25a duzue.

Azkenik, martxoaren 31rako Basalگو-Elgetara mendi irteera antolatu da. Irteera goizeko 8etan egingo da, Elgetako Oskarbi elkartearen egingo dute hamaiketako eta ordubatak aldera Bergarara itzuliko dira autobusez. Izena emateko azken eguna martxoaren 28a izango da.

Felipe Uriarte Bergaran

Ikusgarriak suertatu dira Felipe Uriarte mendizaleak asteen zehar UNEDen eskeinitako diapositiba emanaldiak. Asteazkenean 49 urte bete zituen mendizale ezagunak Nepal, Peru edota Indian bizitako esperientzien berri eman zuen. Astelehenean 88an Nepaleko Kantxenjungara eginiko espedizioa eman zuen ezagutzera, asteartean Perutik zehar egindako bidaiara hurbildu zitzaigun, astazkenean Ganges ibaia izan zen protagonista eta ostegunerako berriz Makaluri buruzko emanaldia iragarrita zegoen.

Munduan zehar ibilitako gizon bat, dudarik ez



ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

Gurutze Gorriko bazkide kanpaina

Abendu eta otsaila bitartean bazkide kanpaina burutu ondoren, Deba Garaiko Gurutze Gorriak emandako datuen arabera, 239 lagun egin dira Gurutze Gorriko bazkide. Lehengo 164ri gehituz, guztira 393 dira momentuan Gurutze Gorriko bazkide Deba Garaian. Aldi berean, 765576 telefono zenbakira deituz, edozein momentutan bazkide egiteko aukera dagoela gogoratu nahi du Gurutze Gorriak.

Presoei buruzko hitzaldia

Bergarako Gestorak antolatuta, datorren asteartean, arratsaldeko 7etan, Juan Mari Olanok "Espetxetako egoera" izenburuko hitzaldia emango du UNEDeko aretoan.

Pala txapelketa

Pala txapelketarako izena emateko azken eguna asteartea izango da. Interesatuak Kirol Zerbitzuan eman dezakete izena, bazkideek 1.000 pta. eta gainontzekoek 2.000 ordainduz.



Martxoaren 24tik apirilaren 6ra lau hitzaldi egingo dira.

Irakaskuntza aztergai

Aranzadi Ikastolak lau hitzaldi antolatu ditu

Bergarako Aranzadi Ikastolak irakaskuntzari buruzko hainbat hitzaldi iragarri ditu martxoaren 24tik apirilaren 6ra bitartean. Horrela, Rakel Del Fragok 8. mailako ikasleen gurasoei zuzenduriko *O.H.O. bukatu ondoren, zer?* izenburuko hitzaldia emango du datorren asteazkenean, hilak 24, arratsaldeko 6 t'erdietan Poligonoko Aranzadi Ikastolan.

Martxoaren 30ean Mirari Bereziartua Ikastolen Konfederakuntzako idazkariak *Euskal Eskola Publikoaren Legea eta Ikastolak*

gaia aztertuko du arratsaldeko 7 t'erdietan UNEDeko aretoan. Apirilaren 1ean, berriz, Abel Ariznabarreta Eusko Jaurlaritzako Erreformaren Institutoko partaideak *Irakaskuntza ez unibertsitarien berrikuntza: erreforma* Ikastolako gurasoei zuzendutako hitzaldia emango du Plazako Ikastolan arratsaldeko 7 t'erdietan eta, azkenik, apirilaren 6an, arratsaldeko 7.30etatik aurrera, *Ikastolak eta Euskal Eskola Publikoaren Legea, sindikatuen ikuspegitik* mahai-ingurua izango da.


FERNANDO ARENAZA
ECENARRO

MARGOAK



NAHIKARI

Taberna
MAZTERREKA 20 ☎ 76 57 71



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Papera jasotzeko kontenedoreak ginezka egoten dira sarritan.

Paper birziklatuaren alde

Eguzki talde ekologistak kanpaina bati ekin dio

Bergarako Eguzki talde ekologistak paper birziklatuaren aldeko kanpaina jarri du martxan. Kanpaina honetan herriko erakunde eta pertsonengana joko dute paper birziklatuak duen garrantzia azaltzeko.

Paper birziklatuak, Eguzkikoen ustez, "oraingo zubaitz mozketak basatia geldituko luke, zeren paper mota hau egiteko ez da erabiltzen egurra, behar den gauza bakarria erabilitako papera da". Erabilitako papera Deba Garaiko Mankomunitateak herrian zehar jarritako kon-

tenedoretara bota dezakegu eta ekintza hauek bultzatzeko Eguzkikoek herriko etxeetan diptikoak banatuko dituzte eta honez gain ikastetxeetara ere joango dira paper erreziklatuaren garrantzia azaltzeko.

Honekin lotuta, Udaletxean erabiltzen diren paperak, orri, kartazal, e.a. paper birziklatuzkoak izatea erabaki da, aktetarako eta alkatearen agurretan erabiltzen direnak ezik. Eguzkiren esanetan, "paper birziklatua kalitate onekoa da eta prezio onean eros daiteke".

Josebaren omenezko afaria

Oxirondo Elkarteak Joseba Askasibar preso ohiari ongi-etorria eskeiniko dio datorren larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 8 terdietan elkartearen egingo den afariarekin.

Bi asmatzaile Berrigara kinielan

Bi lagunek asmatu zuten joan den asteko Berrigara kiniela, bakoitzak 49.910 pta.ko saria irabaziz. Etzaniz eta Zezezagak 22 eta 14 (11-3 erdian) irabazi zieten Ladutxe eta Belokiri eta larunbatean Urionaguena eta Galarzaren aurka jokatu dute finala Bergaran. Kinielak ohizko tabernetan egin ahal izango dira.

HHiko ikastaroak

Helduen Heziketa Iraunkorrek Zentruak martxoaren 29tik apirilaren 7ra bitartean zenbait ikastaro antolatu ditu, inglesa, sukaldaritza edota enkuadernazioa tartean. Izena emateko azken eguna martxoaren 27a izango da eta argibide gehiago nahi izanez gero 76 44 52 telefonora jo daiteke.

**A
R
R
A
N
O**



Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA



Gaspar
Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a
Barrenkale 31 Tfnua: 76 20 02 BERGARA




AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitate-dun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7
behea. Tel. 76 50 39

Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Ignacio Unzeta jauna gogoraturuz

Bergarako lehen alkate abertzalea izan zen

Z iur nago gaur egun Bergarar asko eta askorentzat izen au ezezaguna dala.

Ba bergarra zan eta gizon aundia ta agurgarria. Etxe-Aundin jaioa zan eta orain Ertzaintza dagoen etxean bizi izan zen bere emazte eta bi alabekin.

Oso abertzalea zan eta Franco-ren denboran Burgosko espetxe negargarri eta ikaragarrian egon zan ainbeste urtetan.


Andik urten da Donostian bizi zan eta berriz ere espetxeratu zuten.

Iges egin zuan Ipar aldera ta an bizi izan zan oso apal, eta bertan il zan orain urte gutxi dirala.

Primo de Riveraren diktadura aurretik Bergarako alkatea izan zan abertzaleak aterata.

Ta, orain denbora artako gertaera bat kontatuko dizuet.

Bere alkate denboran, egun baten beti bezala bere etxetik, au da, Espaloitik, Udaletxe aldera zijoan; bidean Bidekurutzeta kalean 30an estanku bat zegoan eta etxe aurrean txakur eder bat bozal gabe ikusi zuan. Berak eman berria zan agindu bat "*bozal gabe kalera ez ateratze-ko txakurrik*".



Ignacio Unzeta.

Estankura sartu zan ta galdetu zuan:

- Txakur hau zuena al da?
- "Bai", erantzuten zioten.

Denbora gutxi barru or dator Udaletxeko aguazil bat multa papel batekin txakurra bozal gabe zegoalako. Eta estankuko jabea Espinosa tar Evaristo jauna zan, abertzalea bera ere. Ikusi zuanean eu-

rak ateratako alkateak multa jarri ziela esan zuan: "Au da benetako gizona!"

Izan ere gizon zuzena eta alkate bikaina izan zan.

Asuntxi Idarreta


ITURKINTZA  **ITURKINTZA**

ARISTEGI - TOLA

ITURKINTZA - BEROGAILUAK - GASA

Bolu, 26 behea ☎ 76 54 17

Artekale, 15 behea.
BERGARA
☎ 76 58 86



- SUKALDEA
- ORMA-ARMAIRUAK
- NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
- ATEAK-LEHIOAK

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia.

Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

AMODIOZKO
GUTUNEN I.
BERRIGARA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEAK



BERRIGARA:

ASTERO-
ASTIRO,
Otik 100era



Oier Araolaza, Mikel Lagunilla eta Jon Sanchez, Amodiozko Gutunen I. Berrigara Lehiaketako irabazleak

Emakumezkoak idazterako orduan gehiengoak izan diren arren, irabazleak gizonezkoak izan dira.

Bakoitzak bere gutunean esperientzia zeharo ezberdinak isladatu ditu, bata bere amodioa txalupa baten gainean adierazi du, besteak gerla zibileko lurbaki hotz batean eta azkenak bere bizitzako laranja erdia ikastola batean aukitu du. Baina hiru maitemindu hauetaz gain, beste 245 maiteminduk bidali zizkiguten beraien sekretu preziatuenak, maitemindu hauetatik 68 Bergarakoak izan direlarik.

Amodiozko Gutunen I. go Berrigara Lehiaketaren erabakia eman zen jakitera joan den larunbatean. Lehen saria (75.000 pta.) Oier Araolaza Arrieta eibartarrak irabazi du "**Amets egin dut bart**" lemarekin aurkeztutako lanagatik, bigarrena (40.000 pta.) Mikel Lagunilla Amosarrain ("**Ama- iur**") arrasatearrak eskuratu du eta bergarar onenari zegozkion 25.000 ptak., berriz, Jon Sanchez



Mikel Hernandez, Ramon Etxezarreta, Arantxa Iturbe eta Miguel Angel Elkoroberezibar epaimahaikideek, larunbatean eman zituzten jakitera lehiaketako irabazleen izenak.

Idigorasentzat izan dira ("6 urte ingo ditzut").

Epaimahaiko lau ki-deak larunbatean bildu ziren Donostiako Parte Zaharreko jatetxe ezagun batetan eta bazkalostean sarien berri eman zuten. Arantxa Iturbe Euskadi Irratiko kazetaria, Ramon Etxezarreta eta Mikel Hernandez idazleak eta Miguel Angel Elkoroberezibar Berrigarako zuzendari ohiak lan dexente izan zuten, kalitateko lan askoren artean ez bait zen batere erreza izan onenak aukeratzea.

Azkenik, eta bazkalosteko solasaldiaren ondoren eta lehiaketak izan duen arrakastaz eta jaso-

tako lan bikainez eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki zuten goian aipatutako sarien bana-keta.

Lehen sariari buruz, zera esan zigun Arantxa Iturbek "*gustatu zait duen amaiera, biok txalupa berean amaitzearena, elkarrekin bidaia bat hastearen ideia, oso amaiera erromantikoa da*".

Guztiak bat etorri ziren saritutako lana gorai-patzeko orduan eta merezimendu osoz jasotako saria zela adierazi zuten.

Miguel Angel Elkoroberezibarrek 2. saria lortu duenaren erreferentzia historikoa destakatu zu-

en, "*are gehiago 18 urte besterik ez dituela kontutan hartzen badugu*". "*Bai, meritu haundia dauka horrek. Horretaz aparte, maite duen pertsonaren presentzia ezinbestekoa duela zelan adierazten duen gustatu zait*" gehitu zuen Arantxa Iturbek.

Ramon Etxezarretak Jon Sanchez bergararrak bidalitako kartaren freskotasuna gorai-patu zuen, "*ingenuitatea azaltzen duelako, bestetan tontokeria asko nabaritzen zen. Honek, aldiz, letran eta marrazkian beste 6 urteko mutiko baten ikuspuntu bat ematen digu, ez da batere erreza*

haurren mundu hori azaltzea. Topikotatik ihes eta guztiz orijinala da. "Bai, nagusi batek hortaz baliatzea eta hori egitea! ere meritu haundia dauka" adierazi zuen, era berean, Miguel Angel Elkoroberezibarrek. Laurek beren sorpresa azaltzen zuten Jon Sanchezek haurren letra eta marrazkiak kopiatzeko orduan erakutsitako abileziaz.

Mikel Hernandezek, azkenik, erotismoa bota zuen faltan. "Ez zegoen karta bat ere ez erotikoa zenik eta oso arraroa da amodiozko gutunez ari garenean".

Guztira 245 gutun jaso ziren, horietatik 68 ber garar partaideek bidalitakoak zirela (Bergarakoen artean 50 emakumeak bidaliak ziren eta gainontzeko 18ak gizonezkoak). Probintzia ezberdinei dagokienez, Gipuzkoatik heldu da karta gehien (200) eta jarraian Bizkaia (22 gutun), Araba (12), Nafarroa (9) eta Iparraldetik berriz karta bat heldu zaigu. Euskaditik kanpo ere bidali izan digute beste gutun bat, Burgoetik hain zuzen ere. Eta sexuei dagokienez, emakumezkoek amodioaz idazteko zaleztasun gehiago erakutsi dute, parte hartu duten gutun guztietatik % 66,5a beraiek idatzia baitzen eta gainontzeko % 33,5a gizonezkoek.

Gaur, osteguna, arratsaldeko 7etan Mariaren Lagundian sari banaketa egingo da. Bertan Mikel Markezek kantalditxo bat eskeiniko du, Jon Sanchezen poesia errezitaldia izango da jarraian eta, azkenik, sari banaketa egin ondoren saritutako lanak irakurriko dituzte beren egileek.

**Oier
ARAOLAZA
ARRIETA**



21 URTE, EIBARTARRA, LEIOAKO
KAZETARITZA FAKULTATEKO
IKASLEA
ETA KITTO! EIBARTAR ALDIZKARIKO
KOLABORATZAILEA

"Betidanik gustatu izan zait idaztea eta orain Literatur Batzorde bat sortu berri dugu Eibarren, literatura gustoko duen edonorri zabalik dagoena. Bertan gure lanak elkarrekin trukatu eta komentatzen ditugu eta lehiaketa honetan parte hartzeko ideia sortu zitzaigun. Ez dakit zelan okurritu zitzaidan gaia bera ere, baina ez nuen irabaztea espero, sorpresa bat izan da".

1. SARIA

Ametz egin dut bart. Txalupa txiki baten nindoan itsasoa zeharkatuz. Aita arraunean, ama lemezain. Arrebak zenbatu egiten zuen. Aitaren arraunkadak, hodeiak, arrainak... Dena zenbatzeari ekiten zion. Nere mekauenak zenbatzen hasi denean berotu egin naiz eta zazpigarrenerako brankatik uretara bota nahi izan dut. Aitak banandu gaitu eta arreba negar zotinka amaren gonapean babestu da. Negar errenkadak zenbatzeari ekin diot nik. Buaaaa. Bat. Buaaaa. Bi. Buaaaa. Hiru. Ixildu zaitetz behingoooozbuaaaa. Lau. Buaaaaaaaaaaaaaaaa... Eguzkiak bere gaina hartu duenean, irlatxo bat begiztatu dut urrunean. Bihotzak hatzeman zaitu bertan eta hurbiltzean ikusi zaituzte begiek. Itsasora jauzi egin nahi nuen albotik pasatzean eta zuregana igeri egin. Besoak luzatu eta

ukitu nahi zintudan. Aitak gogor jarraitzen du arraunean eta amaren lema ez ba bere norabidetik aldendu. Parean pasatuko garela konprenitu dut. Behin eta berriz itsasora, zuregana jauzi egiteko entsaiatu dut baina gorputzak ez zidan erantzuten. Gorpuan hertsirik aurkitzen zen pentsamendua nintzen. Gorputz batera loturik, obeditzen ez ninduen gorputz batera atxikirik. Zugana joan nahi eta ezin, adiskidetasun keinu bat, ikusi zaitudala adierazi nahi eta ezin, maite zaitudala garrasi egin nahi eta ezpainak zabaldu arren, hitzak eztarrian itotzen zitzaizkidan. Itsaso barreanean igarotzen, kikiltzen, kuzkurtzen eta desagertzen ikusi zaitut. Ez naiz keinu edo mugimendu bakar bat ere egiteko gai izan. Begiak malkotan agurtu zaitut. Nere ezintasun koldarrak urraturik garrasi egin dut. Oihu hotz batek iratzarri nau ametsgaiztotik.

Ahoa zabalik eta eskuak indarrean maindireei eutsiz iratzartu naiz. Ohean jira egin eta besarkatu nahi izan zaitut. Ezin ordea. Hutsik dago oheko zure alde. Egia esan ez da inoiz betea egon eta zure alde dela ere nik imajinatzen dut, inoiz beteko duzun esperantzaz. Ez dut txalupa honetan gehiago bidaiatu nahi. Itsasora jauzi egin eta zuregana igeri egin nahi nuke. Zure irlako hutsunea bete nahi dut. Zure irlan hutsunerik baldin badago. Irlarik baldin badago. Zu maitatzea zilegi badut. Ez dut nere ohean hutsunerik nahi. Ez dut nere oherik nahi. Gure ohe betea nahi eta amesten dut, txalupetatik ihes egin ezinean ametsgaiztoetatik iratzartzean besarkatu ahal nahi zaitudalako. Eta bidaiatzen jarraitu behar badut, irlaren batetan ezin badut geratu, bidaia zurekin egin nahi dut, biok txalupa berean.

Mikel LAGUNILLA AMAZARRAIN

MIKEL LAGUNILLA AMOZARRAIN
18 URTE, ARRASATEARRA, UBIKŌ
IKASLEA ALMEN IKASTETXEAN



"Neure eskutitza guda zibilean girotu dut garai hori asko interesatu izan zaidalako. Ez dakit, ez nuen nahi betiko topikoetan erortzea, «maite zaitut» eta horrelako esaldiez jostea karta eta beste zerbait diferentea egiten saiatu nintzen.

Gerratean amodioa ere posible, ezinbestekoa dela uste dut eta hori adierazi nahi izan dut".

Intxorta
1937-ko Urtarrilaren
26a

Kattalin maitia:

Luebakiko lokatzaren artian «lasaitasun» une honetan luma hartu dot. Azkenian be isiltasuna.

Dagoeneko morteroa hotsak ez die nabari. Jaso nauen zure eskutitza, asko poztu nintzela ez dau esan beharrik, baina asko harritu nintzela esan behar dot, ez bait nauen uste posta etsaiaren artetik pasa zitekeenik. Egia esan, guztiz inguraturik gauzkate tropa fasziztek. Espero daigun gutun hau pasa ahal izatea.

Bart geure izarra ikusi nauen, Kattalin, geure izarra! Gogoratzen, gauero lehena ateratzen zan izarra, beste guztien artian nabarmentzen zan izarra. Gogoratzen zenbat barre egin gauen: «Izarra da», «Hori planeta da», «Bai zera, hori izarra da, mesedez! Ez dozu ikusten?». Eta zenbat malko ixuri nauen atzo izarra ikustian, zutaz oroitzean. Izan ere, beldur naz, Kattalin! Nire egunak luebaki zikin horretan bukatziaren beldur, zu berriz ez ikustearen beldur, zure eskuak nire gorputzian berriz ez sentitzearen

beldur, zure adats beltzak berriz be nire aurpegian ez biribilkatziaren beldur, berriro be gure gorputzak izara artian izerditan ez kantatziaren beldur. Ai ene Kattalin! Hain babesturik aurkitzen naz zure besuetan. Zure besarkadak hain die beruak, sentimenduz beteak. Kattalin... Askotan pentsatu izan dot heriotza aurkitzean, dena errezago izango dela, baina ez dot hil nahi! Jainkoarren ez! Oraindik be gauaren bakartasunian zure presentzia sentitzen dot, zure gorputzaren berotasuna, zure irrifarre ederra... Uste dot hori dala bizirik irauteko indarrak ematen duztan gauza bakarra. Zu, Kattalin, zuregatik bizi naz, zureganako maitasunak bizirauten nau. Zu berriro ikusteko beharra daukat, zu besarkatzeko beharra, zure bularrak nire saihetsetan sentitzeko beharra, zure beheko sarkorra nigan sentitu

nahi dot. Behar dot! Zure urtebetetze egunian guda zelaian lore bat aurkitu nauen. Elur zuriaren artian bere kolore larrosa asko nabarmentzen zan, gure izarra bezala Kattalin, gure maitasuna bezala. Fusila lurrera erortzen utzi nauen eta nire esku izoztuekin loria hartu nauen eta korriketan hasi, negarrez... Zuk beti esan izan dozu negarti bat nazela, arrazoia daukazu, gauero egiten dot negar. Ai! Ene Kattalin. Neska ederrei bakarrik jartzen omen zaie «Kattalin» izena. Maixu batek esan zutzan, atzo hil zabien Abadiñoko maisu batek. batalloiko beste gizonak ez esateko esan zotzien barrezka. Baina nik ez nauen barrerik egin, egia delako, «Kattalin» bezalako izen polit bat, zu bezalako emakume eder bati bakarrik jarri dakiok. Kattalin, bai izen ederra! Berriro be morteroak, badatoz berriro be erasuan, hau azken erasua izango dala

esaten doza zerbaitek. Baina mendi edurtu honetan hiltzen banaz be, ez negarrik egin, eta gogoratu: Ez dau ahanztura unerik, oroitzapenak egunsentiarekin batera etortzen jataz egunero. Horregaitik, urrun egon arren, ohetik altxatzen zanian, ez ahaztu nola esnatu zaren eta nork esnatu zaitxuen, haizearekin nahastuta iritsi jatzun muxu hori nik bidalia zan eta.

Agur ene maitte.

Txomin.

2. SARIA

Amodiozko Gutuna

Amaia politika:

Atzo ikusi nortzur kaletik jater eta
asko gustau zoztasun zure Gokuren kami-
eta asko gustau jater eta horregaitrak
zure nobisa izan nahi dot.

Nahi badosu izatia loreak emongetzut.
~~Ikusi~~ Ia oso baundixa naiz eta julixuan
6 urte ingo ditxut. Bihare ikartolan ikusi-
katzut eta andereño Mirenki lagatzen
bostu erakresera bixak jungs ga
Txatxo Terremoto ~~na~~ kasi biada eta
ikuxtera noia.



**Jon
SANCHEZ
IDIGORAS**



JON SANCHEZ IDIGORAS
17 URTE, BERGARARRA, BATXILLER
TEKNIKOKO IKASLEA ARRASATEN

"Zerbait orijinala egitearren egin nuen horrela, bestela besteen antzerako zedozer idatziko nuela nekielako, gauza tipiko bat. Horregatik haurrena okurritu zitzaidan eta hortik letra eta marrazkiak lantzeari ekin nion, neuk egin ditut. Hala ere, egia esan, honekin baino, bidali nuen bestearekin neukan".

BERGARAR ONENA

**BEROGAILU,
GAS eta
ITURGINTZA
AZTERLANAK**



**BAINU
DISEINAKETA**

ZABETX
INSTALAZIOAK

Masterreka, 14 BERGARA

☎ 76 54 14

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK



Koldo Eleizalde, 8 BERGARA

☎ 76 00 00

1990eko abenduaren 14an ikusi zuen argia Berrigararen lehenbiziko aleak, JARDUN Elkarteak Udalak 1.990eko aurrekontuetan euskarazko astekari bat sortzeko zuen partida bat aprobetxatuz.

JARDUNen helburu nagusia komunikabideetan euskarak zuen hutsunea betetzea zen eta gaur egun, 100 alea kaleratu denean, helburu hori zutik dirau, gero eta indartsuago gainera.

100 aste, 100 ale

Taldeko lana

Miguel Angel Elkoroberezibarren zuzendaritzapean, hasieran kazetari bat (Jon Andueza, orain Arrasate Telebistan), JARDUNeko dinamizatzailea (Eduarne Arenaza) eta kolaboratzaile mordo batek osatzen zuten hasierako taldea.

Ordutik taldea haundituz joan da eta gaur egun hiru kazetari (Eneko Azkarate, Mikel Elkoroberezibar eta Eduardo Mendibil) eta publizista baten (Alex Azkarate) lanak egiten dute posible astero-astero Berrigara zure buzoietaraino heletzea, beti ere Erredakzio Kontseiluaren (Gorka Elorza, Iñaki Eraña eta Alex Labaienek osatutakoa) zuzendaritzapean, eta TXANTXANGORRI banaketa taldearen eta hauen arduradun den Eduarne Arenazaren lanari esker; eta baita kolaboratzaile talde zabal baten lanari esker ere (astebukaerako kolaboratzaileak, Pol-Pol Argazki Taldeko kideak, Josu Okina eta Anton Arrillaga hasieratik jo ta ke lanean diharduten marrazkilariak, zuzentzaileak, musutru-



BERRIGARAREN irakurle zintzoenetakoak gaztetxook dira.

keko kolaborazioak bidaltzen dizkigutenak, etab. luze bat).

Aipamen berezia merezi dute anuntzianteek, nola ez, beraiek gabe ezinezkoa gertatuko litzaiyuke errebista kale-

ratzea eta. Eskerrik asko guregan azaldutako konfidantzagatik.

**3.300
harpidedun**

Hasieratik hona, esan

bezala, ibilbide luzea izan du BERRIGARAK eta 100 ale horietan gure herrian albiste izan den guztia, euskara hutsez, irakurleongana eramaten saiatu da. 16 orrialde eta 1.500 aleko tiradarekin ekin zi-



1. ALEA (1990-12-14)



10. ALEA (1991-2-22)



35. ALEA (1991-10-6)

on BERRIGARAK eta gaur egun 24 orrialdeko aldizkaria heltzen zaie astero-astero 3.300 harpidedunei (1991eko maiatzetik aurrera 20 orrialde eta 92eko maiatzetik aurrera 24). Era berean, azpimarratzekoa da azkenaldian aldizkaria eskatzen digutenetako asko etorkinak direla, beren seme-alabentzako eskatzen digu-ienak eta iruditzen zaigu

BERRIGARAK integrazio-funtzio haundi bat ere betetzen duela.

BERRIGARAK herriko bizitzan gertatzen den guztiaren ispilu izatea izan du helburu eta horrela, Bergaran arlo politikoan, kirol mailan, irakaskuntza mailan, kultura arloan... etab luze batean murgildu da.

Horrez gain, elkarte ezberdinak denbora luze

honetan bete izan dituzten urteurren edota herri-ospatutako ekitaldi nabarmenei ale bereziak eskeini dizkie BERRIGARAK. Horren lekuko ditugu 1991eko urriaren 6an Bergaran ospatutako Kilometroak 91ren ale berezia (35. zenbakia), BERRIGARAREN lehen urteurrena (91eko abenduaren 13koa, 45. zka.), Bergara Igeri Elkarteko so-

rtereraren 20. urtemuga (92ko urtarrilaren 24a, 49. zka.), Pol-Pol Mendizale Taldearen 50. urteurrenari eskeinitako ale berezia (martxoak 15, 56. zka.), Bergarako odol emaleen zilarrezko eztaiak (urriak 16, 80. zka.) edota herriko jaiak, kar-nabalak edota Gabonak izan direnean landutako ale bereziak. Aldi berean, azken 2 urteotako Gabo-



56. ALEA (1992-3-15)



67. ALEA (1992-6-5)



90. ALEA (1992-12-24)



nabalak edota Gabonak izan direnean landutako ale bereziak. Aldi berean, azken 2 urteotako Gabonetan, Udal KiroL Zerbitzuaren laguntzaz, herriko kirolari onenak saritu dituzte BERRIGARAKO irakurleek KiroL Sarien bitartez.

Urtekaria eta Gida

Astekariaz gain, beste esparru batzuk ikutzeko interesa azaldu du aste-kariak eta horren lekuko ditugu Urtekaria 1992, Berrigara Gida 1993 eta aurki argitaratzearen dagoen Bergarako Atletismoaren Historia.

Urtekarian Bergarako kultur eta kirol mugimendu zabalaren berri ematen saiatu gara eta, horretaz aparte, 92an gertatutako urteko berriak nagusienak hilabetez-hilabete, mahai-inguru pare bat, elkarrizketak, inkestak, estatistikak etab. eman dira 140 orrialdetan eta 2.000 aleko tiradarekin. 30 bat lagunek kalean burututako salmentan (1.000 pta.tan salgai jarri zen) hartu zuten parte eta, horrez gain, hainbat taberna, liburu-denda edota dendetan egon da salgai.

Gidari dagokionez, hainbatetan erabiltzen dugun telefono listin antzeko bat euskara hutsean ematea izan da gure helburu nagusia eta hori euskararentzat zailenakoa den arlo batekin lotu, merkatal arloarekin hain zuzen ere. 68 orrialdetan beharrezko telefonoak (osasun zentru, larrialdi zerbitzuak, ikastetxe, kirol eta kultur elkarteak... etab. luze bat) eta Bergara eta Antzuolako gida ko-



BERRIGARako portadak izan dira:

mertziala aurki daitezke. Azken sail honetan Bergarako merkatari eta profesional guztien helbide eta telefonoak agertzen dira. 3.500eko tiradaz, hau doan banatu baizitzaien BERRIGARako harpidedunei.

Bergarako Atletismoaren historia aberatsa ere ezagutzera eman nahi die BERRIGARak bere irakurleei. 60-80 orrialde izango ditu eta tirada txiki samarra kaleratu eta salgai jartzea pentsatu da, bertan atletismoak gure herrian eman dituen momenturik onenak gogoratu nahi ditugularik.

Etokizuna

Etokizunerako asmoen artean aldizkaria orain arte bezala kaleratzea legoke, sail berriren bat sartuz eta orrialde kopurua mantenduz. Horrez aparte, datorren astean ez bada hurrengoan kalera-tuko dugu BERRIGARako 350 harpideduni egin zaien astekariari buruzko inkestaren emaitzak, baita ere lehen aipatutako "Atletismoaren Historia Bergaran", Amodiozko Gutunen Lehiaketaren datorren urteko edizioa eta beste hainbat ekitaldi puntual.

Gure asmoa errebista beraren kalitatea pixkanaka-pixkanaka hobetzen joatea da (argazki hobeak, kolorea gero eta gehiago erabili, beste zenbait aldaketa egin...) eta horretan jarriko dugu gure esfortzurik haundienak.

Beti ere zuri, irakurle zintzoari, ahalik eta hobereana eskeini nahian eta, hori bai, dena zurekin irakurle, 200, 500, 1000. alea ospatzeko esperantzaz.



Txurigo



Jatetxea

• Menua eta karta

• Ezkontzak

• Jaunartzeak

• Txerrikumeak,
bildotsa eta baserriko
oilaskoak labean
erreta

OSINTXU ☎ 76 48 63

BERRIGARA

PELOTA KINIELA

FINALA

ETXANIZ - ZEZEAGA
URIONAGUENA - GALARZA

ESKUZBINAKAKO PELOTA TXAPELKETA


Larunbata, martxoak 20, Bergarako Udal Pelotalekuan

KINIELAK TABERNA HAUTAN:

- IRRINTZI
- INFERNUKUA
- AVENIDA
- ANTXONI
- ERREKI

- TXURIGO
- POL-POL
- ETXAGI
- ARRANO
- ZER-NAI





OXIRONDO

Zubietako elkarte

Oxirondo elkarte sortu aurretik, "Izarra" izeneko hermandade bat zegoen. Kuadrila honek elkarte bat egiteko inizatiba izan, eta aurrera jo zuten. 1966.eko ekainaren 26an zabaldu zuten bere ateak Oxirondo elkarteak. Garai hartan 60 bazkide ziren.

Gaur egun Oxirondo elkartean 69 bazkide dira. Bazkide guzti hauen baztazbesteko adina 50 urtetakoa da. Bazkide berrien sarrera zabalik dago elkartean. Nahiz eta oraindik ez egon emakumerik bazkide bezala, orain dela bizpau urte Oxirondo elkarteko urteroko baztarrean emakumeak bazkide bezala sartzeko proposamena onartu zen.

Tomas Iturbe eta Leonardok esan diguten bezala, urtean 1.400.000 pza. ko kaja batzen dute elkartean egiten den kontsumoarekin. Joan zen urtean bazkide gazte berri batzuk sartu ziren

Oxirondon, eta badirudi harrezkero kontsumoan gorakadatxo bat nabari dela. Falten kontutan sartuaz, Oxirondo elkartean gehienez %2 ko faltak izaten dituzte.

Aipatu beharrekoa da baita Alkartu-Nai sortzeko ideia elkarte hontatik hasi zela 1970.ean.

Hontaz gain, Oxirondo elkarteak hainbat eta hainbat gauza gertatu ditu herriarentzat. Oxirondo elkarteko bazkideak pelota zaleak dira, eta dirua ateratzeko asmoarekin sarri antolatuta dituzte pelota partiduak. Hauek besteak beste Ikastola-erentzat, zaharren egoitza



Don Pedro zena, Oxirondok Iñigo Igartuari eskeinitako omenaldian.

berrirako, Kilometroetarako... izan dira. 1983, 1984, 1985, 1987 eta 1992. urteetan Aspace-erentzat ere antolatuta izan ditu pelota partiduak. Guzti hontaz gain ere omenaldiak eta abar ditugu.

Beraien eguna, urteurrena tokatzen den larunbatean ospatzen dute bazkari batekin.

Sukaldari ugari dago Oxirondo elkartean, baina bat aipatzekotan Leonardo Laskurain aipatuko dugu.

Aipatzekoa da baita, elkartearen dirulaguntzarekin Bixente Jauregik egin duen lana. Honek elkartearen historia batuaz argazki eta datuz jositako 3 liburu gertatu ditu.

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1966.eko ekainaren 26an

BAZKIDEAK: 69.

HELBIDEA: Zubietako, 15.

PRESIDENTEA: Juan Irigoien.

ELKARTEAREN EGUNA: Santa Marinako jaiak.

URTEKO KUOTA: 16.800 pza.

Ainboa Lete

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Teilerian, Tfnoa: 76 27 93

Labegaraita Auzoa

IRUDI

**Erlojudenda
Bitxitegia**

San Pedro 11


☎ 76 51 65

ORTZI

ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68

HEMEN
edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88

IRUK-BAT
IGELTSERITZA

☎ 76 24 74 20590 SORALUZE

Biltegia eta bulegoak: Zubietako, 24 behea

☎ 76 36 71 20570 BERGARA

Pasa den astelehenean egin zen Bergarako epaitegian Gaztetxearen eta Apezpikutzaren arteko epaiketaren lehen saioa. Hurrengo datorren 25ean izango da eta epaiak apirilera arte itxoin beharko du. Gaztetxeak 26 urte daramatza funtzionatzen, baina orain apezpikutzak bere lokala eskatu die gazteei, hauek bere aldetik ez dute irten nahi eta orain epaitegiari dagokio arazoari buruzko azken hitza.



Epailearen erabakiaren zai

Hainbat ekintza burutu dituzte Gaztetxeok asteen zehar

Gaztetxearen etorkizuna nahiko zalantzan dago eta orain epaileek dute azken hitza, baina Apezpikutzak eta Gaztetxeok epaitegian aurkeztu dutenari buruz hitz egiteko, bi aldeetako abokatuekin egon gara: Juan Ramon Ugalde, Apezpikutzaren aldetik eta Amaia Zabaleta, Gaztetxearen abokatuak.

Bakoitzak bere ikuspuntua argitu du, Juan Ramon Ugaldek bere defentsan Gaztetxeak Apezpikutzari errentarik ordaindu ez diola saiaturko da frogatzen "duela 26 urte apezpikutzak Ju-

ventudes Parroquiales delakoari lokala debalde utzi zion, orain Juventudes Parroquiales desagertu egin da, eta uste dugu beste jende multzo bat dagoela gaztetxean ez daukana zerikusirik haserako taldearekin. Jende talde hau errenta ordaindu gabe ari da lokala okupatzen eta lege aldetik egoera hau ez da normala" adierazi digu Ugaldek.

Abokatuaren hitzak entzun ondoren zera galdetu diogu, ea posible izango litzatekeen arazolari konponbidea emateko Gaztetxeak errenta bat ordaintzea eta Ugalderen

ustez "nik dakidanez hor inoiz ez da errentarik ordaindu eta nik defendatzen dudan aldeak nahi duen gauza bakarra orain gaztetxeak duen lokala uztea da. Apezpikutza duela 6 urtetik dabil lokala berreskuratu nahian eta basean gauzak modu onean egin nahi genituen, baina ikusi dugu urteak pasa direla eta azkenean epaitegira jo beharra izan dugu". Gaztetxeok gazteek esaten dutenez lokalaren mantenimendua eta berriztapenak errenta ordaintzeko moduan har daitezkeela, baina Apezpikutzaren

abokatuarentzat "nire ustez horrek ez dauka zerikusirik, nik uste dut Apezpikutzak nahikoa egin duela lokala uztean eta ezin dakiok eskatu berak ordaintzea fakturak, argia ea... ez baldin badago kontratu bat sinatua".

"Errenta ordaindu da"

Amaia Zabaletak hartu du Gaztetxearen interesak defendatzeko ardura eta berak dioen moduan "Apezpikutzak adierazi duenez orain Desabucio en Precario" egin nahi du eta honek esan nahi du

lokala erabiltzen duenak ez duela errentarik ordaintzen eta beraien esaten dutenez hori da gure egoera, baina guk uste dugu urte hauetan Apezpikutzak ez duela ezer egin lokalean hau mantentzeko eta lokal honek urte hauetan aldateta eta behar asko izan ditu eta gastu hauek gure ustez errenta ordaindu ordez har daitezkeela, zeren Apezpikutzak 26 urtetan ez bait du lokalean ezer inbertitu".

Honez gain badaude arazo batzuk izenari dagokionez ere, Zabaletak esan duenez "eurak denbora guztian ari dira azpimarratzen lokal horren atzean bi kolektibo daudela: «Juventudes Parroquiales» eta orain deitzen den moduan Gaztetxea. Beraien ustez bi kolektibo hauek zeharo ezberdinak dira, eta nik hor «azpiko» bat ikusten dut, zeren guk demostratzen badugu Juventudesek noizbait zerbaite ordaindu diola

apezpikutzari, beraien esango digute Gaztetxeak ez duela Juventudesekin zerikusirik".

Amaiak aspektu moralak ere ikusten ditu kasu honetan "gaztetxean jende asko dago egun osoa bertan pasatzen duena, beraien bigarren etxetzat daukate eta orain oso gogorra da kaleratzea. Gainera astelehenean epaitegiaren aurrean egindako kontzentrazioan demostratu zuten gazteak ez dabiltzala hortik zehar kristalak eta apurtzen, txokolatada egin eta berehala txukundu zuten lekua. Epailea ere harrিতuta geratu zen gazteen portara formalaz".

"Santa Rita, Rita, Rita..."

Gaztetxeok astelehenean egindako kontzentrazioan erdarazko esaera zaharra ohiukatzen zuten, "Santa Rita, lo que se da no se quita" eta horrek laburtzen du

beraien pentsakera "guk ez daukagu Gaztetxetik alde egiteko asmorik, bemen izan gara urte mordoxka batean eta ez daukagu alde egiteko asmorik. Epaiketaren sententzia gure aurkakoa izaten bada, gaztetxetik indarrez atera beharko gaituzte eta uste dugu orain dela garaia gauzak hitz eginda konpontzek".

Gaztetxeko asanblada ez da sententziaren zain jarrita egongo "astean zehar hainbat ekintza antolatu ditugu eta 25erako ere epaitegiaren aurrean beste ekintza batzuk egingo ditugu, baina guk ez dugu inongo konflikturik sortu nahi eta gainera errenta ordaintzeko prest gaude, baina Apezpikutzak badiudi berean jarraitzen duela".

Lau miloi konsignan


Gaztetxearen arazoa momentuz Apezpikutzaren gazteen artekoa da,

baina itxiko balitz orduan Bergarako Udalak ere izango luke zerikusirik eta gauza batzu argitzeko Victoriano Gallastegi alkatearekin hitz egin dugu eta bere ustez "guk orain Gaztetxearentzat lau miloi ditugu konsignan, diru hau aspalditik dago, eta gazteekin hitz egin genuen, joan zen urteko abuztuan, irtenbide batzuk bilatzeko, baina denbora pasatu da eta ez dira, berriz, guregana berba egitera etorri".

Sententzia Apezpikutzaren aldekoa bada, gazteek lokala utzi egin beharko dute eta egoera honetan Udalaren jarrera jakin nahi izan dugu "guk orain ezin dezakegu ezer egin, baina gerora begira bila dezakegu beste lokalen bat edo irtebideren bat, baina beti ere estatutu batzuk errespetatu beharko lituzkete, Udalera laguntza eske etortzen diren beste talde batzuen moduan".



Gaztetxeok futbolina ere atera zuten epaitegi aurrera.



Appéñiz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

KAILASH

**ZENTRO
ESOTERIKOA**

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean
diplomatutako profesionalak

Tarota • Hipnosia • Erresonantzia


Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

LXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

**Zer irtenbide ikusten diozu
Gaztetxearen arazoari?**



Alex Barruso
37 urte, langilea

Gazteek oraingo lokalari eutsi beharko liekete azkenera arte, baina Gaztetxean gauzak egiten direla demostratuz.




Izaskun Muniategi
19 urte, ikaslea

Dagoen lekuan ondo dago nere ustez. Nere ustez ez daukate hortik kendu beharrik.



Tere Diez
27 urte, langilea

Ez zait asko inporta baina oraingo lokaletik botatzen badituzte beste lokalen bat eman beharko lieke Udalak.



Joseba Ugarte
27 urte, langilea

Indarrez ez da ezer lortzen. Hitzegin eta konponbide bat topatu behar da, gazteek lokal bat behar dugu eta.

J a t e t x e a

J u b i l a t u e n

T a b e r n a

MENUA 750 pezeta

AFARIAK

Kuadrilantzako aproposak
Prezio onean

KAZUELATXOAK

☎ 76 62 71

ANTZUOLA



Munduaren ordenu berria

"Munduaren ordenu berria" dela eta, edozer gauza arrazoitzen hasi dira zenbaitzu. Badirudi arerio komunista-gorri-masoi-albano marxista desagertzeaz dagoenean beste irtenbide bat eman behar zaiola Estatu Batuen izugarriko prepotenziari. Duela egun gutxi Nazio Batuetako Egiaren Batzordeak ezagutzera eman duenez, El Salvadorreko militarrek izan ziren Ignacio Ellacuria euskalerritarra eta beste bost Jesuita hiltzea agindu zutenak. Noski, Ejerzito honen atzean beti San Salvadorreko gobernuia izan da, eta txontxongilo hau bere kasa erabili ohi izan dutenak Washingtoneko burukideak izan dira.

Orain Ertamerikako gobernuari atxekitzen zaizkio urteetan zehar buruturiko hilketak eta tortura kasuak, baina non gelditzen da errepresio politika hori diruz eta armaz lagundu duenaren erantzunkizuna? Argi dago Sam osaba berriro ere salbu utziko dutela "munduaren ordebu berria" bertan utzi nahi dutenak, eta munduan zehar sarraski gehiago egiteko aukera ere mantenduko dutela.

Izan ere, gure patroik bilakatu dira Estatu Batuak eta inor ez da kapaz egoera honen aurrean ezer esateko. Zerbait salatu nahi duenak ezin du ezer egin Washingtonen ordezkariak zapaldu dituelako mendebal mundu guztian, eta hauen iritziz dena ondo doa. EEBBek Irak erasotzen dutela? EEBBek Ertamerikako talde paramilitarrak armaz josten dituztela? EEBBek askapenerako mugimendu guztiak erasotzen dituztela? "Lasai, lasai" diñoskue, "dena munduaren ordenu berria lortzeko da".

Mikel Lizarralde



Bizitza, lehen eskubidea

Nere bizitzan zehar, noizean behin izan ditut heriotz zigorrari buruzko elkarrizketak, gehienak laburrak ziren, denok bat bait gentozen. Beste nazioetan ematen zen legea bezala ikusten nuen. Neure inguruan... Ez dut denak esango, baina gehiengoak aurkako eritzia zuela uste nuen.

Orain hurrengo, Alkaserreko hiru neskei gertatutakoa dela eta, jende askok harritu nau bere hitzekin, gorroto eta heriotz hitz hoiekin. Eta ez naiz azken finean telebistan agertu ziren pertsonen mintzatzen ari, nere inguruan betidanik edo urte askoz izan diren pertsona edo lagunei buruz baizik.

Beti uste izan dut gizonok ez dugula inoren bizitza kentzeko eskubiderik, nahiz eta sortu ginenetik arrazoi bat edo beste honetan aritu.

Zer da errespetua bestela? Zer askatasuna? Zer dira, bizitza gabe? Gizonen lehen eskubidea bizitza da. Norbaitek gaizki jokatu du, guk berbera egingo dugu? Gizonaren progresu famatuan atzerakada deritzot.

Errespetu dezagun bizitza, edozeinena.

Galdetu didate zer egingo nukeen honelako kasu bat gertu izatean. Egitan... ezin dezaket jakin. Bakoitzak bere eritzia du, baina ez litzaidake gustatuko inoren borerro izatea, bere bizitza edo lehen eskubidearen itzaltzaile izatea.

Nora Askargorta

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA



IZADI
PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

ESPOLON



School of English
BERGARA

Ibargararai, 31
☎ 76 03 53

**CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO P.E.T. AZTERKETARAKO
MATRIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK
(Martxoak 22-30).**

ORDUTEGIA: 10.00-12.30.

OSTIRALETAN: 10.00-12.30 eta 14.30-19.00.

AZTERKETA EGUNA: Ekainak 19.

TOKIA: Eibarko Armagintza Eskola.

P.E.T. AZTERKETAK EGITEKO ZENTRU BAIMENDUA

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.*


ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR



□ Magnolioaren inausketa

Ikusle ugari bildu zituen asteazkenean **Olaso Dorreko magnolioaren** inausketak. Pasa den abuztuaren 23an bere adar sendoena apurtu bazitzaion, orain bi asteko elurteak ere kalte dexente sortarazi zizkion 160 urte inguru dituen zuhaitz ezagun honi (momumentu naturala kontsideratua dago) eta konponketa beharrezkoa suertatu zen. Argazkian ikusten den garbia

ikusgarriaren bitartez Hondarrabiko **Tintin Lorazaintza** enpresak burutu zuen inausketa eta, bide batez, goiko adarrak kableekin lotu ziren.



□ Jaietako kartela

Karlos Galarragak irabazi du Kultura, Jaiak eta Gazteria Batzordeak antolatutako **Pentekoste Jaietarako kartel** lehiaketa. Zazpi lan aurkeztu ziren lehiaketara eta epaimahaiak Galarragak egindakoa aukeratu zuen, jaietako programaren azalean

ikus ahal izango delarik. Horrez gain, Arte Ederretako 24 urteko gazte bergarar honek 50.000 pta.ko saria eskuratuko du. Jaiak heldu bitartean (maiatzak 28-ekainak 1) kartelarekin konformatu behar...



HARATEGIA
ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

IGARZA

**MERZERIA
LENZERIA**

D. IRALA 5
Tfnoa: 76 24 88 BERGARA

□ **Gipuzkoako txapeldunak**

Antonio Merino eta Julen Garitano antzuolarrak Gipuzkoako Kross Txapelketako txapeldun berriak ditugu. Igandean Arraten jokaturako probetan, Merinok (Urola taldekoa) senior mailan garaipena lortu zuen eta Garitanok (Antzuola Kirol Elkarte) berriz, seniorretan. Antzuolak, Keniaren antzera, korrikalari bikainak ematen jarraitzen du eta espero dezagun biek sasoi onari eustea denbora luzez... Zorionak!



Antonio Merino eta Julen Garitano.




□ **Amorrrainak hilik San Juanen**

Eguzki talde ekolojistak salatu duenez, asteartean, hilak 16, zenbait amorrrain eta "sarbo" hilik agertu ziren San Juan errekan, argazkian ikus daitekenez. Hasieran, 1991ko uztailen bezala, isurketaren bategatik izango zela pentsatu bazuten, Eguzkikoek egoera aztertu eta arrantzarietara bota diete errua, "arrantzan egiteko legez kanpoko arrainen tamainua, amua zintzilik eta arrainak sakabanatuta zeudela kontutan izanik". Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteko kide batek, berriz, beraiek ere ekolojistak direla aldarrikatu eta honelako kasuak pertsona partikularrek eragindakoak direla adierazi digu.

Zertan dihardute ba?

JON ANDER GANTXEGI



Arrasaten Injenieritza ikasketak burutu dituen 26 urteko bergarar hau Pol-Pol Mendizale Taldeko presidente berria izendatu dute datozen bi urtetarako, Andoni Larrañaga ordezkatur.

AINIZE GOMEZ DE SEGURA



Udal Kirol Zerbitzuko Eskolako korrikalari honek Gipuzkoako taldea ordezkaturako du datorren igandean, hilak 21, Araban jokaturako den Euskakadiko Kross Alebin Txapelketan.

MAKAILO

Makailau **ETXEA** kazuelak gertatzen ditugu

Ibargarai 15

ARIZNOA

Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

PELI NARBAIZA IBARZABAL



Mutua General de Seguros

Agentea Bergaran

Aseguru orokorrak

Matxiategi, 3 - 5.B BERGARA ☎ 76 47 57

Umore giroan

Plaentxiko bandia

Plaentxiako San Iñazio bandia -karlisten bandia- oso famatua zan. Itxurazko musikuak ziran. Ardaue bitarteko egon ez balitz...

Beñi baten ba ziarduen pieza bat jotzen. Batzuk amaitu eben. Bestiak, baña, ondiok jarraitu eitxen zeben jotzen.

Zelan jarraitu dozue?, esan zetsen.

- Ene! Guri ondiok iru konpas falta jakuaz...

Papelak aldrebes ipiñita...

Ixilik eskatu

Sartu dira bi gizon tabernara. Bata jarri zan mostradoreko alde baten.

Bestia, beste puntan. Alako baten, ertz batekoak esatetsa dia- rrez beste puntan zeguanari:

- I, noiz pagau biestak zorra?

Juan jako zorduna "akredori- angana" eta esatetsa:

- I, nik eskatu neuanaiari, ixil- ixilik eskatu neuan gero e...

Pedro Zelaia

FERNANDO AZKARGORTA HIL DA


Tximista bezala pasa zen herri- aren alde batetik bestera Fernando- ren eriotz berria. Gaixorik zebilen aspalditxoan, baina ez genuen uste hain azkar eta hain gazterik hilko zitzaigunik. Margolaritzan maisu eta ikasle, aita eta seme izan diren Ber- garako bi margolariak hil dira gazte- rik: Simon Arrieta eta Fernando Az- kargorta.

Maitea zen bere jaioterrian Fer- nando. Gizon ona, atsegina, lagu- nartekoa, alai eta ameslari genuen. Martxoaren 16an, Santa Marinako elizan, arratsaldeko zazpiretan egin zitzaion elizkizunean garbi ikusi zen jendeak maite zuela.

Baina ez du Bergarak bakarrik negar egin Fernandoren eriotzean, Gipuzkoa osoak eta margolarien munduak ere negar egin du.

Gizon bezala ezezik margolari- tzan ere oso ona baitzen Fernando. Ikusi berria dugu beronen esku ar- tetsua oraindik orain Donostiako pintura agerketan. Are sona haun- diagoa hartu du berriro Bilbaon "Galeria Windsor"-en. Gorazarre handiak egin zizkion bere lanari hortan diharduen jendeak.

Gure izadiatz, gure lurraz gure lurkeraz eta gure herriaz maitemin-



Fernando Azkargorta.

durik zegoen. Inork baino hobeto agertzen zekien gure luraren urdin- orlegiak. Esku finezko ukituz boro- biltzen zituen bere lanak.

Gaurko margolaritzaren joeraz kezkatu bizi zen. Ez zuen atzean gelditu nahi. Aurrera begiratzen zuen. Baina ez zen berrikeria batean ere jausten. Batez ere bere burua aurkitu nahi izaten zuen bere margo- lanetan.

Har beza Fernandok bere lagun baten azken agurra eta beza atsedean pakean.

**1973-III-25ean argitaratua.
ZERUKO ARGIA**

ORAIN DELA...

EDEL tapizdenda


Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

Kiroldegiko Taberna



Labegaraleta Tfnoa: 76 56 41

ileapaindegia eder gela

disdira

Mahasterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI altzariak

**Era guztietako
altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

EGUREN GESTORIA

Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezihar



Santi Uribe

Santi Uribek jaso du aste honetan **BERGARA PIE**lek emandako BONOFOTOko saria.

Orain dela bi asteko argazkian agertzen zen garaixea **Agirre auzoan** dago eta bere aurrean dagoen baserriaren izena, berriz, **Agarre** edota **Agirre** duzue.

ZORIONAK **Santiri** eta besteok segi jokatzten!!

Zein da **eliza** honen izena?




Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____


Saria: ZUHAIZTIK
emandako saria

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

EMAIOZU BUELTA ORRIARI...





... EMOIZU BUELTA BAT ESPOLOITIK



ZIPRISTIN OINETAKOAK
☎ 76 57 36



anezka ☎ 76 59 25



ALDASORO OINETAKOAK ☎ 76 01 18



BERGARA PIEL
☎ 76 20 70



ZUHAIZTI TABERNA ☎ 76 59 22

ESPOLOIKO DENDARIAK

BISITA GAITZAZU

Lokatza Ziklismo Eskolak aurtengo denboraldiko taldeak aurkeztu zituen

Joan den larunbatean Lokatza Ziklismo Eskola-ko taldeen aurkezpena egin zen Frontoian. Iazko emaitza onak errepikatu eta txirrindularitzarenganako zaletasuna pizten jarraitzeko asmoz, Jesus Kortabarria "Kaxeta" k zuzentzen duen taldeak kategoria ezberdineko 5 talde aterako ditu eta, horrez gain, 74 neska-mutiko arituko dira Eskola Kirolean Jon Ander Garitano eta Jose Mari Gabilondoren agindueta-
ra.

Taldeei dagokienez Igor Altuna izango da 5 mutiko infantilen entrenatzailea, 1. go urteko kadeteen taldean 10 mutiko izango dira (Gotzon Del Teso entrenatzaile), 2. urteko kadeteak (11) Miguel Angel Larrañagak entrenatuko ditu, Miguel



Miguel Angel Larrañaga eta berak zuzentzen duen kadete taldea.

Angel Lazpiurrek 2. urteko jubenilak (5) eta, azkenik, Manuel Reifs izango da 2. urteko jubenilen arduraduna.

Esan bezala, Gipuz-

koako Txirrindularitza Federazioaren programa jarraituz, kirol eskolarreko txirrindularitza programan Bergara eta Antzuolako 74 neska-mu-

tikok hartuko dute parte apiril eta maiatzean.

Jesus Kortabarria "Kaxeta" ren hitzetan, "taldearen asmoa orainarteko bidetik jarraitu eta, aldi berean, herriko txirrinduzale gazteei gustokoa duten kirola egiteko aukera ematea litzateke".

Aurtengo denboraldirako Lokatzak 2 milioi 1' erdi pta. inguruko aurrekontua du eta Udalak emandako diruarekin eta loteria eta beste zenbait zozketa antolatuz egingo diote aurre.

Hauxe da Bergaran jokatuko diren lasterketen egutegia: Labegarietako XXXI. Saria (maiatzak 1, 2. urteko kadeteentzat), ekainaren 5ean promozio eta infantil mailako frogak izango dira, ekainaren 26an III. San Martzial Saria (lehen urteko kadeteentzat) eta, azkenik, II. Santa Marina Saria (uztailak 24, jubenilentzat).

Julio Barcina berriz garaile Gorlan

Julio Barcinak (Café Baqué) irabazi zuen joan den igandean Gorlan jokaturako XIX.

Gorlako Txirrindulari Igoera, Iñigo Cuesta iazko irabazlearen aurretik. Horrela, txirrindulari bizkaitarra Gorlan bigarren aldiz irabazten duen lehen korredorea eta palmaresik onena lortu duena dugu, igandeko eta 1989ko garaipenez gain, bi bigarren postu (91 eta 92) hirugarren bat (88) eta laugarren bat (90) eskuratu bait ditu. Beteranoetan berriz, Jose C. Toribiok iazko garaipena errepikatu zuen eta Igarza bergararra seigarren sailkatu zen.



Gerra osteko futbol ekipoak

Gerra ondorengo lehenengo futbol taldea omen da argazki honetan agertzen zaiguna. Angel Jauregik esan digunez, Bergara F.C. taldea izango omen da. Maletan C.D. Vergara agertzen bada ere, ezin da Club Deportivoa izan, azken hori 1952an sortu zen eta.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Zutik: Roman Cacho, Santos Izagirre, Tomas Moñux, Antonio Ubierna, Angel Jauregi, Antonio Gonzalez, Luis Garmendia eta Francisco Imaz.

Makurtuta: Francisco Arrondo, Fermin Agirre, Migel Ojanguren, Luis Artola eta Jesus Murua.



Bergara F.C. taldea.

Bigarren argazkia, berriz, 1947koa dugu. Ez dugu jakin zein talde izan litekeen baina badirudi talde bateko baino gehiagoko jendea dagoela. Atzean ageri dena, Agorrosin baserria eta ezker aldean jokalariai aldatzen ziren kaseta.

Zutik: Fernando Azkargorta, Pako Alkorta, Francisco Arrondo, Bitor Mujika, Kruz Gallastegi, Aurelio Bilbao eta Lorentzo Garitano.

Makurtuta: Zipriano Murua, Migel Iriarte, Francisco Lamariano eta Francisco Imaz.



1947ko futbol talde bat.

Estepan Plazaola

Argazkiak: Patxi Errenteri

MEMESA

IRIMO

SKF

phantom

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Ozaeta 6an. Amueblatua edo amueblatu gabe. ☎ 76 40 67.

3 pertsonarentzako **pisua alokairuan** hartuko genuke. ☎ (945) 45 03 48.

Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.

Arrizurin garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19

Jacan etxe bat alokatzten da. ☎ 73 07 60. Begoña. (gauzez).

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.

Pisua salgai Herri Lagunak kalean. ☎ 76 24 79.

Garajea alokatzen da Zurraderon ☎ 76 21 39.

Pisua salgai Zurradero 2.ean. ☎ 76 53 30 (gauzez).

Garajea salgai Urrats taberna azpian. ☎ 76 57 93.

Pisu haundia salgai Urteagan. Terraza, sukaldea, jangela, 3 logela... ☎ 76 50 18

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 55 22.

Pisu edo buardilla bat hartuko nuke **alokairuan**. ☎ 76 58 37.

DENETARIK

Kerosenozko estufa japoniarra salgai ☎ 765584.

Eskiatzeko botak (44a) eta **Snow-Board** eskiatzeko **tabla** salgai ☎ 76 16 33 (Iñaki).

Bateria salgai. ☎ 76 47 07 (Richar).

Mendiko bizikleta (GAC) salgai ☎ 76 47 94.

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako **klase partikularrak** ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

MOBYLETTE CADY motor bat salgai. ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Skiak (1.40 zm) eta **botak** (35), saltzen ditut. Prezio ona. ☎ 76 21 64.

Egunero **Bergararik Zornotzara** joan nahi dut. ☎ 76 44 46 (Xabier).

Etxean 2. BUP mailako **partikularrak** hartuko nituzke ☎ 76 38 71.

Etxeke gela bikoitz bateko **altzariak salgai.** Egoera onean. ☎ 76 18 61.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

Errekuperatutako eta berriztutako **altzariak salgai.** ☎ 76 25 12 / 76 82 17.

Nissan Vanette furgoneta bat (SS-AG) salgai. ☎ 51 51 41.

Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatant (bat 60.000). ☎ 76 10 34.

Marketari lana duen sarrerako altzaria salgai. ☎ 76 32 51.

Software-dun **2.400 BPS modema salgai.** Berri-berria. Prezioa interesgarria. ☎ 76 51 62.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

SEGA Megadrivea salgai. (8 jokurekin). 35.000 ppta. ☎ 76 45 21 (Jabii).

LANA

AutoCAD, FP2 Informatikian praktketan lan egingo nuke. ☎ 73 33 42.

Emakumezko batek **haurrak zaindu** eta **etxeke lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Itzulpen eta **interprete lanak** egingo nituzke. (Ingelesa zein alemana) ☎ 76 46 54.

Etxean lan egiteko aukera ematen dizugu. Aretxabaletako 161 postakutxara (20550) bidalizu karta bat.

Hildakoak

Juana Intxausti Laskurain
martxoak 13
Ruperta Villeras martinez
martxoak 16, 71 urte

Jaiotakoak

Iraia Olivas Etxaniz
martxoak 5
Gorka Elkoroiribe San Vicente
martxoak 5

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

Iletxo ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS


Fleming Dokorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



SUKALDERAKO ALTZARIAK

- DENDA BERRIZTU DUGU
- ZATOZ MODELO BERRIAK IKUSTERA